



❖ EMAKUME ZENTROA Gabonetako menua prestatuko dute gaur Xalapartan

Sukalde ikastaroak ohitura bihurtu dira Gabon garai honetan Hernanin. Gaur *Elkano 17* Emakumearen Elkarte sozio-kulturalak antolatu du ikastaroa, eta Irizar eskola-ko sukaldari batek emango du. 16:00etan, Xalaparta elkartean. Irekia da. ||

❖ BERRIAK

Elkarteko tabernari guztiek bilera dute gaur, Biterin

Gabonetako ordutegia, eta txotx denboraldia izango dituzte gaur hizketagai, Berriak elkarteko tabernari guztiek. Berriak elkarteak deitu du bilera, gaur, 16:30etan Biterin. ||

Errege kabalगतan parte hartu nahi dutenek bilera gaur

Errege kabalगतa izango da datorren urtarrilaren 5ean Hernanin. Bertan parte hartu nahi duten ume eta gazte guztiei dei egin diete antolatzailleek, gaur, Biterira azaltzeko, 17:30etan. ||

❖ GOBERNU BATZORDEA Balantxako aldapan urbanizazioa berritzeko lanak gaur adjudikatu daitezke

Tokiko Gobernu Batzordea izango da gaur, 14:00etan Alkatetzan. Bertan, puntu bakarra izango dute erabakitzeko: Balantxako maldako berrurbanizazio lanak behin betiko adjudikatzea. ||

❖ OGASUN BATZORDEA Bi puntu hizketagai

Nazioartea Kultur Elkarteak eskatutako diru-laguntza eztabaidatuko dute gaur, besteak beste, Ogasun Batzordean, 10:30etan. ||



Hernani eta Galarreta lotzen dituen karretera generalaren bi aldetara egingo da proiektua. Argazkia Oriamenditik aterea dago.

Atzo sinatu zituen Hernaniko Udalak Galarreta eta Estubegiko hitzarmenak

Hernaniko Udaletxean atzo sinatu ziren, sustapen publikoko bi hitzarmenak. Parke Teknologikoa eta Unibertsitatea joango dira, besteak beste, bi eremu horietan.

HERNANIKO Udaletxean bi hitzarmen sinatu ziren atzo, Estubegi eta Galarretako eremuetan epe ertainean egingo diren bi proiektu haundiri buruzkoak. Bata Donostiako Parke Teknologikoarekin sinatu zen, eta bestea Buruntzaldeko Industrialdearekin. Marian Beitialarrangoitak prentsaurrean azaldu zue-
nez, «biak ala biak albiste ezin hobeak dira Hernaniren etorkizunarentzat».

Ikerketa, garapena, berrikuntza eta teknologia
Beitialarrangoitiak Gobernu Taldeko kide guztiekin batera eman zuen prentsaurrekoa, eta azpimarratu zuen, Udal batek ez duela egunero izaten tamaina honetako proiektu bat sinatzeko aukera. «Ikerketa, garapena, berrikuntza eta teknologia ardatz izango dituzten jarduera ekonomikoak ekarriko ditu, unibertsitateaz gain, eta etorkizunari begi-

ra lan egingo duten puntako jarduerak onura izugarriak izango ditu».

«Esfortzu izugarria»
Beitialarrangoitiak azpimarratu zuen, alde guztiek egin behar izan dutela esfortzua proiektu hau aurrera ateratzeko: Oronak proiektuari emandako bultzadagatik; lurjabeek, lurren errekalifikazioa onartzeagatik (egungo Arau Subsidiarioetan lur eremu

horretan etxeak egitea aurreikusten baitzen). Orona, lurjabeak eta Udalaren gestioez gain, alkateak azpimarratu du, beharrezkoa izan dela udaleko beste alderdien babesa, eta baita Jaurlaritza eta Diputazioarena ere.

Proiektuari laguntzeko, Udalak erabaki du, eraikigarritasunagatik dagokion %15 ez jasotzea, eta beraz, diru hori, 7.000.000 euro inguru, bertan inbertituko ditu. ||

Langile ikastolak kontzentrazioa egingo du Donostian

Langilek salatu nahi ditu, Jaurlaritzak Hernaniko ikastetxeen inguruan hartutako zenbait erabaki. Kontzentrazioa bihar izango da, Jaurlaritzako Hezkuntza Departamendu aurrean (Andia, 13).

LANGILE ikastolak kontzentrazioa egingo du, bihar, eguerdiko 12:00etan, Donostian, Jaurlaritzako Hezkuntza Departamenduaren egoitza aurrean (Andia, 13).

Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa oharrean, Langilek salatzen ditu, Hez-

kuntza Departamenduak hartutako bi erabaki:

1) «Batetik, Hernaniko DBHko ikastetxe guztiak fusionatzeko agindu du, nahiz eta adostasun nahikorik ez dagoen».

2) «Bestetik, Haur eta Lehen Hezkuntzan, matriku-

«Jaurlaritzak fusioa agindu du Hernaniko DBHko ikastetxe publikoena, nahiz eta adostasun nahikorik egon ez».

lazioa 75 ikasletara mugatu nahi du, eta horrek zapaldu egiten du, gurasoek duten eskubidea hezkuntza eredua aukeratzeko».

Langilek dioenez, ikastolaren Hezkuntza Proiektua arriskuan jartzen dute Jaurlaritzaren bi erabakiok. ||

biokbi
optika

Antziola, 14
Tel.: 943 33 68 86

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Orain, betaurreko graduatuak edo eguzkitako betaurrekoak erosita, eta opari bat egingo dizugu.

yone
boutique

Nagusia, 63
Tfona.: 943 55 74 73
HERNANI

GABONETAKO ESKAINTZA BEREZIAK

Zatoz ikustera!

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Castilla** Urbietia 7 - 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Euria gogotik egingo du gaur egun guztian. Haizeak zakar joko du hego mendebalek, eta azken orduan mendebalera aldatuko da. Temperaturak igo egingo dira.
BIHAR Haize zakarra ibiliko da bihar ere. Hego ikutua izango du, baina tenperaturak jaitsi egingo dira. Ateri izango dugu ia egun guztian.

Prentsa oharra PSE-EE alderdia:

«Herri kontsulta egin beharra dago, Atez Ateko sistema martxan jarri baino lehenago»

Hernaniko alderdi sozialistak kontsulta lehenbailehen egiteko eskatu du, eta salatu du, gaiari buruzko «desinformazioa» haundia dela.

ZORTZI punturekin arrazoi-tu du Hernaniko alderdi sozialistak, herri kontsulta egiteko premia dagoela, Atez Ateko zabor biltza martxan jarri baino lehenago. Alderdi sozialistak, baita ere, garbi utzi nahi izan du, ez daudela sistema baten edo bestearen alde, «baina orain sistema bat martxan jarri, eta gero atzera sistema aldatzea egin behar-kio balitz, izugarri suposatuko lioke Hernaniri, Vilassar de Mar herriari suposatu zion bezala».

Honakoak dira arrazoiak, puntuz puntu, kontsulta lehenbailehen egiteko:

1) «Atez Atekoa martxan jartzea 1.000.000 euro kostako zaio Hernaniko Udalarari».

2) «Datorren hilean, zaborra biltzeko kontratua aldatu egin behar da. Kontratu berri

hori enpresa batekin eginez gero, 10-15 urterako egin behar da, inbertsio haundia suposatuko lukeelako. Gero sistema berriz aldatuz gero, gastuak bikoiztu egingo lirake, enpresari indemnizazioa ordaindu beharko litzaiokeelako, eta abar».

3) «Bertako langileekin egitea erabakitzen bada (eta badirudi ideia horrekin dabilzala), langile gastuak kontenplatu behar dira (funtzionariak). Eta gero, gaur egungo sistemara bueltatuko bagina, udala hipotekatuta geratuko litzateke».

4) «Edozein kasutan ere, berriz sistemaz aldatuko bagenu, ibilgailuak aldatu beharko lirake, kontenedorentzako egokiak ez direlako».

5) «Egungo kontenedoreak desagertu egingo dira, eta

horiek salduta, inbertsio bat izango du Udalak (aurrekontuetan hala agertzen da). Baina eta berriz oraingo sistemara bueltatuko bagina, beste kostu bat litzateke».

6) «Konpost-guneak egiteak zer kostu izango duen ez dakigu oraindik, eta konposta hara garraiatzeak ere ez».

7) «Zikuñaga eta Antzionalako urbanizazioak berriro direnean, kontenedore lurperatuak eliminatu dira. Beste kostu bat, sistema berriz aldatu beharko balitz».

8) «Azken batean, kontsulta hori Atez Ateko sistema martxan jarri eta gero egiten bada, eta kontsultan Atez Atekoak irabazten ez badu, izugarrizko kostua suposatuko dio Hernaniri. Kasu horretan beti bezala, herritarren poltsikuek nozituko dute». ■



Sariz betetako Santo Tomas Goiz Eguzki jubilatutako etxean

Goiz Eguzki jubilatutako etxean, Santo Tomas festa izan zuten atzo. Elkarte bete egin zuten inguratu zirenek, eta bertan izan ziren, baita ere, Udaleko arduradunak: Marian Beitalarrangoitia eta Izaskun Ezeiza, eta Ongintza Patronatuko gerentea Joxe Leon. Bestalde, urtero bezala, udazkeneko sari banaketa izan zuten. Honakoak izan ziren sarituak: Toka jokuan, emakumezkoetan irabazle: Patro Montenegro; bigarren: Angeles Manso; gizonezkoetan irabazle: Jose Lopez; bigarren: Lucinio Moreno. Igel jokuan, emakumezkoetan irabazle: Maria Pilar Abad; bigarren: Lorentxa Oyarbide; gizonezkoetan irabazle: Francisco Hernandez; bigarren: Jesus Brillo. Poto jokuan, emakumezkoetan irabazle: Patro Montenegro; bigarren: Angeles Manso; gizonezkoetan irabazle: Jose Lopez; bigarren: Francisco Navas. Billarrean irabazle: Mari Carmen Arraras; bigarren: Maria Luisa Zuriarrain. Musean irabazle: Eugenio Urruzola eta Ramon Ormaetxea; bigarren: Fernando Galan eta Agustin Cormenzana. Tutean irabazle: Claudio Cao eta Jose Lopez; bigarren: Fernando Galan eta Agustin Cormenzana. Eskoban irabazle: Fernando Galan eta Agustin Cormenzana; bigarren: Daniel Carrera eta Basilio Barrado. Puntuan irabazle: Daniel Carrera eta Basilio Barrado; bigarren: Francisco Navas eta Francisco Hernandez. ■

❖ ZUMITZA ZIKLOTURISTA TALDEA

Lizentzia egiteko aukera gaur

Federatu lizentzia egiteko aukera izango du gaur, Zumitza zikloturista elkartearen parte hartu nahi duenak. Zumitza taberna bertan. ■

❖ SAHARA

Saharako kanpamenduetarako janaria biltzen, gaur arte aritu dira ikastetxeetan

Saharako kanpamenduetarako janaria biltzen ari dira Hernanin, eta ikastetxeetan egin duten biltza gaur bukatuko dute. Janaria bidali nahi duenak badu oraindik aukera Biteri kultur etxean uzteko.

Bestalde, diru-laguntza eman nahi duenak, kontu korronte honetan egin dezake: 3035 0080 94 0800054177. ■

Atez ateko zalantzak argitzen

Atez atekoa martxan jarri denetik zenbat jasotzen da bereizita Usurbilen?

Hondakinen %80tik gora. 2008ko apirilean %23 bakarrik jaso zen bereizita. 2009ko apirilean, berriz, % 82.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



V. eta X. URTEURRENA
Antonio Odriozola Oiarzabal
2005eko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urterekin.
eta
Xixili Jauregi Iraola
1999ko abenduaren 22an hil zen, 69 urterekin.



NAHIZ ETA URRUN JOAN
MUNDU HONETATIK
EZ DUZUE ALDE EGIN
GURE BIHOTZETIK.

Hernanin, 2009ko abenduaren 22an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638
ETXETAKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.**
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antzietan 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4**



PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.

► Industria eta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak

Kardaberaz 45
Tel.: 943 55 21 31



ERRIOGUARDA
«N E A»

OHARRA
Asteazkena, abenduak 23,
GAUEAN
IREKITA

Iturriaga kalea, 10 - Tel: (943) 33 02 91
20120 HERNANI (Gipuzkoa)